CASO 1

Maria es una mujer viuda de 71 años que solicita valoración de dependencia

Situación médica:
Junto a la solicitud, adjunta informe médico en el que figuran los siguientes diagnósticos:
- Demencia senil
- Parkinsonismo medicamentoso
- Esquizofrenia
- Incontinencia urinaria
- HTA

Tratamiento: Memantina, Adiro, Lormetazepam, Trazodona y Rilast

Situación funcional:
Come sola pero necesita que le preparen la comida en el plato y hay que estar presente mientras come para que no deje de hacerlo. Toma dieta túrmix por falta de la mayoría de piezas dentales.
Desde hace unos meses presenta también incontinencia fecal por lo que su hijo le pone pañales aunque ella se los quita cuando le parece y los deja en cualquier parte.
Maria conserva una movilidad adecuada y reconoce a sus hijos. Durante la valoración de la dependencia deambula constantemente alrededor de los valoradores y se desplaza sin objetivo de una estancia a otra. Su hijo refiere que suele ir detrás suyo cada vez que él se mueve, hecho este que le pone muy nervioso. María no es capaz de mantener un discurso coherente ni interviene en la conversación. No parece que entienda las preguntas ni el sentido de la valoración.
Los hijos no refieren episodios de agresividad física pero sí resistencia a los cuidados y a veces hostilidad manifiesta, les cuesta mucho asearle y cambiarle de ropa por su oposición y pérdida de rutinas de higiene. El día de la visita para la valoración se encuentra desaseada, con ropa muy sucia y mal abotonada; se había puesto dos blusas y desprendía fuerte olor corporal.
Duerme bien por las noches aunque lo hace en un colchón puesto en el suelo por miedo de los hijos a que se caiga.
María se niega a salir de casa incluso para acudir a consultas médicas, su MAP apenas la conoce y hace más de dos años que abandonó las consultas de control con el psiquiatra. Sí acudió con sus hijos a consulta de neurología hace unos meses, donde se le prescribió Memantina para el tratamiento de la demencia. Es su hijo el que se encarga de administrársela junto al resto de fármacos.

Situación social:
María vive en su domicilio junto a uno de sus hijos y cuidador principal. Tiene otra hija que vive en un municipio cercano y que acude semanalmente para apoyar a su hermano en los cuidados de María.
La casa no reúne condiciones de habitabilidad, se trata de una casa antigua, deteriorada y poco ventilada, con suciedad extrema en todas las estancias pero sobre todo en cocina y baño, con bolsas de basura llenas y sin cerrar, restos de alimentos por el suelo, etc. En toda la casa hay un fuerte olor.
El hijo con el que convive es consciente de la situación pero se siente desbordado y sobrecargado. Refiere niveles elevados de ansiedad por lo que debe medicarse y refiere también dificultad creciente para controlarse y manejar la situación.
Ambos hermanos consideran que lo mejor para su madre sería que fuera a una residencia pero María se niega a ello.

CUESTIONES PLANTEADAS:

1- Realizar una valoración de dependencia basada en el BVD (4 puntos).

2- Aplicar, si procede, el cuestionario de Indicadores de Malos Tratos a Personas Mayores según el instrumento adoptado por el Gobierno Vasco para la comunidad autónoma de Euskadi (2 puntos).

3- Enumerar los recursos y/o prestaciones a los que tiene derecho según el grado de dependencia y realizar una orientación razonada de los que se consideran adecuados, valorando la necesidad de otras medidas de protección tales como la incapacitación legal. (4 puntos).

1. KASUA

Maria 71 urteko emakume alarguna da, eta mendekotasun-balorazioa egiteko eskatu du

Egoera medikoa:
Eskaerarekin batera, txosten medikoa aurkeztu du, non diagnostiko hauek ageri diren:
- Dementzia senila
- Parkinsonismo medikamentosoa
- Eskizofrenia
- Gernu ihesa
- Hipertentsioa

Tratamendua: Memantina, Adiro, Lormetazepam, Trazodona eta Rilast

Egoera funtzionala:
Bakarrik jan dezake, baina janaria platerean prestatu behar diote, eta norbait aurrean egon behar da jaten duen bitartean, jateari ez uzteko. Turmixeko dieta hartzen du, hortz-pieza gehienak falta dituelako.
Badira hilabete batzuk uzki-esfinterreko ihesa duela. Hori dela eta, semeak pixoihalak jartzen dizkio; baina, nahi duenean, kendu egiten ditu, eta edonon uzten ditu.
Mariak mugikortasun egokia du, eta seme-alabak ezagutzeko gai da. Mendekotasun-balorazioan zehar, hara eta hona ibili da, etengabe, balorazioa egiten ari diren pertsonen inguruan; gela batetik bestera ibili da, noraezean. Semeak adierazi du Maria bere atzetik ibiltzen dela mugitzen den bakoitzean. Ez da gai izan diskurtso koherente bat mantentzeko, eta ez du parte hartu solasaldian. Ematen du ez dituela ulertu galderak, ez eta balorazioaren xedea ere.
Seme-alabek ez dute aipatu agresibitate fisikoko episodiorik; baina erresistentzia erakusten du zainketen aurrean, bai eta batzuetan ageriko etsaitasuna ere. Nekez lortzen dute Maria garbitzea eta hari arropa aldatzea, aurka dagoelako eta higiene-azturak galdu dituelako. Balorazioa egiteko bisita-egunean, garbitu gabe egon da; soinean arropa zikin-zikina eraman du, eta txarto botoiturik. Bi alkandora jantzirik eta gorputz-hats gogorra dariola egon da.
Gauez, ondo egiten du lo, baina lurrean dagoen koltxoi baten gainean egiten du, seme-alabak hura erortzeko beldur baitira.
Mariak ez du etxetik irten nahi, ez eta medikuaren kontsultetara joateko ere. Lehen mailako arretako medikuak ia ez du ezagutzen, eta orain dela bi urte baino gehiago utzi zion psikiatraren kontroleko kontsultetara joateari. Duela hilabete batzuk, neurologia-kontsultara joan zen seme-alabekin, non Memantina agindu zitzaion dementziaren tratamendurako. Semea arduratzen da farmako hori eta gainerakoak emateaz.

Egoera soziala:
Maria bere etxean bizi da, seme batekin, zeina zaintzaile nagusia den. Alaba bat ere badu, hurbileko udalerri batean bizi dena. Astero, amaren etxera joaten da, nebari Mariaren zainketa-lanetan laguntzeko.
Etxeak ez ditu betetzen bizigarritasun-baldintzak: zaharra da, hondatuta dago, eta ez dago behar bezala aireztatuta. Gainera, gela guztiak ezin zikinago daude, bereziki, sukalde eta bainugela; zabor-poltsa beteak daude, itxi gabe, eta janari-hondakinak lurrean botata. Hatsa dago etxe osoan.
Mariarekin bizi den semea egoeraz jabetuta dago, baina egoerak gainditu egin du eta lanez gainezka dago. Antsietate-maila altuak dituela esan du. Hori dela eta, medikazioa hartu behar du. Horrez gainera, gero eta zailtasun handiagoa du bere burua kontrolatzeko eta egoera maneiatzeko.
Neba-arreba bien iritziz, amarentzat egokiena da egoitza batera joatea; baina Mariak ez du nahi.

GALDERAK:

1- Egin MBBn oinarritutako mendekotasun-balorazio bat. (4 puntu).
2- Aplikatu, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzak EAErako onartu duen Adineko Pertsonenganako Tratu Txar Fisikoen Adierazleen galdetegia. (2 puntu).
3- Adierazi mendekotasun-graduarekin bat zer baliabide eta/edo prestaziotarako duen eskubidea. Egin egokitzat jotako baliabide eta prestazioen orientazio arrazoitu bat. Eta baloratu ea beharrezkoak diren beste babes-neurri batzuk, hala nola legezko ezgaitzea. (4 puntu).

MENDEKOTASUNA BALORATZEKO BAREMOA (MBB)

EKINTZAK / *AVTIVIDADES*				
Jarduerak / *Tareas*	Burutzea Desempeño	Arazoa Problema	Laguntza pertsonalak Apoyos Personales	
			Mota Tipo	Maiztasuna Frecuencia
JATEA ETA EDATEA *COMER Y BEBER*				
Zerbitzatzen diren elikagaiak ezagutzea edo/eta atzitzea *Reconocer y/o alcanzar los alimentos servidos*				
Janaria puskatan ebaki edo zatitzea *Cortar o partir la comida en trozos*				
Janaria ahora eramateko mahai-tresnak erabiltzea *Usar cubiertos para llevar la comida a la boca*				
Edalontzia ahora hurbiltzea *Acercarse el recipiente de bebida a la boca*				
TXIZA ETA KAKA EGITEAREKIN LOTURIK DAGOEN HIGIENE PERTSONALA *HIGIENE PERSONAL RELACIONADA CON LA MICCIÓN Y DEFECACIÓN*				
Toki egokira joatea *Acudir a un lugar adecuado*				
Arropa manipulatzea *Manipular la ropa*				
Postura egokia hartu edo uztea *Adoptar o abandonar la postura adecuada*				
Garbitzea *Limpiarse*				
GARBITZEA *LAVARSE*				
Txorrotak ireki eta ixtea *Abrir y cerrar grifos*				
Eskuak garbitzea *Lavarse las manos*				
Bainuontzira, dutxara edo antzeko tokira sartzea *Acceder a la bañera, ducha o similar*				
Gorputzaren beheko aldea garbitzea *Lavarse la parte inferior del cuerpo*				
Gorputzaren goiko aldea garbitzea *Lavarse la parte superior del cuerpo*				
GORPUTZAREN BESTE ALDE BATZUK ZAINTZEA *REALIZAR OTROS CUIDADOS CORPORALES*				
Orraztea *Peinarse*				
Azazkalak moztea *Cortarse las uñas*				
Ilea garbitzea *Llavarse el pelo*				
Hortzak garbitzea *Lavarse los dientes*				
JANZTEA *VESTIRSE*				
Soinekoak eta oinetakoak ezagutu eta atzitzea *Reconocer y alcanzar la ropa y el calzado*				
Oinetakoak janztea *Calzarse*				
Botoiak edo antzekoak lotzea *Abrocharse botones o similar*				
Gorputzaren beheko aldeko arropak janztea *Vestirse las prendas de la parte inferior del cuerpo*				
Gorputzaren goiko aldeko arropak janztea *Vestirse las prendas de la parte superior del cuerpo*				

EKINTZAK / *AVTIVIDADES*				
Jarduerak / *Tareas*	Burutzea *Desempeño*	Arazoa *Problema*	Laguntza pertsonalak *Apoyos Personales*	
			Mota *Tipo*	Maiztasuna *Frecuencia*
OSASUNA ZAINTZEA *MANTENIMIENTO DE LA SALUD*				
Laguntza terapeutikoa eskatzea *Solicitar asistencia terapéutica*				
Gomendatutako neurri terapeutikoak aplikatzea *Aplicarse las medidas terapéuticas recomendadas*				
Etxean arriskuak saihestea *Evitar situaciones de riesgo dentro del domicilio*				
Etxetik kanpo arriskuak saihestea *Evitar situaciones de riesgo fuera del domicilio*				
Larrialdi baten aurrean laguntza eskatzea *Pedir ayuda ante una urgencia*				
GORPUTZAREN POSIZIOA ALDATU ETA POSIZIOARI EUSTEA *CAMBIAR Y MANTENER LA POSICIÓN DEL CUERPO*				
Ohean etzanda egotetik eserita egotera aldatzea *Cambiar de tumbado a sentado en la cama*				
Eserita egotea *Permanecer sentado*				
Aulki batean eserita egotetik zutik egotera aldatzea *Cambiar de sentado en una silla a estar de pie*				
Zutik egotea *Permanecer de pie*				
Zutik egotetik aulki batean eserita egotera aldatzea *Cambiar de estar de pie a sentado en una silla*				
Eserita egonda nork bere gorputza transferitzea *Transferir el propio cuerpo mientras se está sentado*				
Etzanda egonda nork bere gorputza transferitzea *Transferir el propio cuerpo mientras se está acostado*				
Etzanda egonda gorputzaren grabitate-zentroa aldatzea *Cambiar centro de gravedad del cuerpo mientras está acostado*				
ETXEAN JOAN-ETORRIAK EGITEA *DESPLAZARSE DENTRO DEL HOGAR*				
Janzteko joan-etorriak egitea *Realizar desplazamientos para vestirse*				
Jateko joan-etorriak egitea *Realizar desplazamientos para comer*				
Garbitzeko joan-etorriak egitea *Realizar desplazamientos para lavarse*				
Nork bere burua zaintzearekin zerikusia ez duten mugimenduak egitea *Realizar desplazamientos no vinculados al autocuidado*				
Jende orok erabiltzen ez dituen gelen artean joan-etorriak egitea *Realizar desplazamientos entre estancias no comunes*				
Jende orok erabiltzen dituen etxebizitzako geletara iristea *Acceder a todas las estancias comunes del hogar*				
ETXETIK KANPO MUGITZEA *DESPLAZARSE FUERA DEL HOGAR*				
Eraikinetik kanpo ateratzea *Acceder al exterior*				
Eraikinaren inguruan mugitzea *Realizar desplazamientos alrededor del edificio*				
Inguru ezagunetan hurbileko joan-etorriak egitea *Realizar desplazamientos cercanos en entornos conocidos*				
Ingurune ezezagunetan hurbileko joan-etorriak egitea *Realizar desplazamientos cercanos en entornos desconocidos*				
Ingurune ezagunetan urrutiko joan-etorriak egitea *Realizar desplazamientos lejanos en entornos conocidos*				
Ingurune ezezagunetan urrutiko joan-etorriak egitea *Realizar desplazamientos lejanos en entornos desconocidos*				

EKINTZAK / *AVTIVIDADES*				
Jarduerak / *Tareas*	Burutzea Desempeño	Arazoa Problema	Laguntza pertsonalak Apoyos Personales	
			Mota Tipo	Maiztasuna Frecuencia
ETXEKO LANAK EGITEA *REALIZAR TAREAS DOMÉSTICAS*				
Jakiak prestatzea *Preparar comidas*				
Erosketak egitea *Hacer la compra*				
Etxea garbitu eta zaintzea *Limpiar y cuidar de la vivienda*				
Arropa garbitu eta zaintzea *Lavar y cuidar la ropa*				
ERABAKIAK HARTZEA *TOMAR DECISIONES*				
Egunero zer jan erabakitzea *Decidir sobre la alimentación cotidiana*				
Higiene pertsonalari lotutako ohiturak zuzentzea *Dirigir los hábitos de higiene personal*				
Etxetik kanporako joan-etorriak planifikatzea *Planificar los desplazamientos fuera del hogar*				
Pertsona ezagunekiko harremanak erabakitzea *Decidir sus relaciones interpersonales con personas conocidas*				
Pertsona ezezagunekiko harremanak erabakitzea *Decidir sus relaciones interpersonales con personas desconocidas*				
Eguneroko aurrekontuari dagokion dirua kudeatzea *Gestionar el dinero del presupuesto cotidiano*				
Eguneroko denbora eta jarduerak planifikatzea *Disponer su tiempo y sus actividades cotidianas*				
Jendearen eskura dauden zerbitzuen erabilera ebaztea *Resolver el uso de servicios a disposición del público*				

= **GRADUA**

GRADO